

www.unidaspodemos.info

Europa solidarioa eta demokratikoa nahi dugu, ongizatean oinarritua, ekologista, feminista, bakea sustatzen duena, eskubideak eta askatasunak bermatzen dituena, eta kultura-aniztasuna babesten duena. Jendearen eguneroko arazoez arduratzen den Europa bat, gehiengoaren interesei erantzuten diena eta guztiontzako etorkizun bat bermatuko duena.

**Horregatik, hamar ardatz hauek proposatzen ditugu Europa aldatzeko.**

**Maiatzaren 26a  
Europar  
hauteskundeak**

 **elkarrekin  
PODEMOS**



**ELKARREKIN**


**EU  
RO  
PA**

**ALDA  
DEZAKEGU**

 **elkarrekin  
PODEMOS**

**Maiatzaren 26a  
Europar  
hauteskundeak**

**M<sup>a</sup> Eugenia  
Rodríguez  
PALOP**



## 1. DEMOKRAZIA

Legezotasun demokratikoa duten Europar Batasuneko erakundeak dira azken hitza izan behar dutenak. Horregatik, Parlamentua indartu behar dugu Batzordearen eta Kontseiluaren aurrean. *Lobbiek* eta boteretsuek erabakiak hartzen jarraitzea eta bizi ditugun desberdintasunak larriagotzen jarraitzea saihestu behar dugu. Itunak gainditu behar ditugu, Europa jendearen zerbitzura jartzeko.

## 2. PERTSONENTZAKO EKONOMIA BAT

Ekonomiari buelta eman behar diogu eta gehiengo sozialaren interesen zerbitzura jarri behar dugu. Europar Batasuneko gobernu ekonomikoa demokratizatu behar da ezinbestean, Europako Banku Zentralarekin hasita, eskubideak erdigunean jartzen dituen, guztientzako soldata duinak eta babes soziala bermatzen dituen eta zerga-justiziaren alde eta aberatsen zerga-ihesaren aurka borrokatzen duen produkzio-eredua bermatuz.

## 3. ESKUBIDEEN BERMEA

Murrizketak egiten dituen Europar Batasun baten aurka, Europak gizarte-eskubide unibertsalak bermatu behar ditu, osasuna, hezkuntza, pentsioak eta etxebizitza, besteak beste, hain zuzen ere hamarkadetan zehar borrokatu dugunon alde, eta azken urteetako austeritate-politikei buelta eman behar die, justizia soziala eragozten baitute. Hiritarren eskubideetan eta askatasunetan egun dauden murrizketak gelditu behar dira, eta kultura sustatu behar da Europako aniztasunaren oinarri gisa.

## 4. ZERUMUGA MOREA

Iraultza feminista bat. Emakumeak guztiontzat hobeagoa izango den gizarte berri bat eraikitzeko bidea marrazten ari dira. LGTBI pertsonen benetako berdintasuna bermatzen duen Europa nahi dugu, tratu-berdintasuna babesten duen legedi batekin. Diskriminaziorik eta indarkeriarik gabeko Europa behar dugu, gure gorputzen gaineko erabakiak hartzeko askatasuna aitortzen duena, zerbitzu publikoekin eta soldata berdinekin, eta pertsonak hartatzen dituen ekonomia batekin, bizitza erdigunean jarriz.

## 5. ZUBIAK, EZ HORMAK

Eliteek gutxiengo pribilegiatu batentzako gotorleku bihurtu nahi dute Europa. Migratzen duten pertsonen eskubideak gure eskubideak dira, eta, horregatik, gizarte abegitsuak eraiki behar ditugu, eta beste batzuek hormak eta heriotza altxatzen dituzten lekuan, zubiak sortu behar ditugu, migratzeko legezko bide seguruak ahalbidetuz eta legez kanpoko itzulketak eta migatzaileen kriminalizazioa errotik ezabatuz.

## 6. BIDEZKO MERKATARITZA

Nazioarteko merkataritzak ez du zertan izan behar eliteen eskuetan dagoen espoliazio- eta kontrol-tresna bat, gaur egun merkataritza-itunekin gertatzen denaren aurka. Europak oparotasun kolektiboaren zerbitzura dagoen bitarteko bihurtu behar du merkataritza, giza eskubideei, planetaren mugei eta espekulaziorik gabeko ekonomiari erantzun behar diona, hain zuzen ere produkzio- eta merkataritza-sarea indartzen duen eta munduko justizia ekonomikoa sustatzen duen politika baten bitartez.

## 7. KANPO POLITIKA BERRI BAT

Militarizatuta dagoen eta gatazka izugarrieta murgilduta dagoen mundu honetan, Trumpen esanetara ez dagoen Europaren helburua izan behar da bakea, elkartasuna, justizia unibertsala, demokrazia, alderdi aniztasuna eta nazioarteko eskubidea sustatzea.

## 8. ZERUMUGA BERDEA

Klima-aldaletak premiazko neurriak eskatzen ditu produkzio-ereduaren aldaketa artikulatzen duen iraultza ekologikoa gauzatzeko, hain zuzen ere jasangarritasuna, pertsonen eskubideak eta animaliekiko harreman berri bat sustatuz. Kalitatezko enpleguak, ekonomia *uberizatzearen* aurkako sektore estrategikoen subiranotasuna eta inor atzean uzten ez duen trantsizio energetiko bat bermatzen duen eredu. Onartezina da gutxiengo batzuen etekinek gure planeta arriskuan jartzea. Beste planetarik ez dugulako.

## 9. ELIKADURA-SUBIRANOTASUNA

Lehen sektoreak kontsumitzaileen, ekoizleen eta planetaren arteko harreman-paradigma berria artikulatzeko politika jasangarriak eta bidezkoak behar ditu, eskubideetan oinarrituta eta ez merkatuaren logikan. Ezinbestekoa da Nekazaritza Politika Erkideari eta Arrantza Politika Erkideari buelta ematea, nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-ustiategi txikiak eta ertainak bideragarriak egiteko, eta jabe handien onurarako bakarrik izan ez daitezen.

## 10. LANDA-MUNDU BIZIA ETA LURRALDE-JUSTIZIA

Europak bere herrien arteko gizarte- eta lurralde-kohezioa lortu behar du. Horretarako, ezinbestekoa da ura eta bestelako ondasun komunak izateko eskubide unibertsala kontrol publikoaren bitartez bermatzea. Era berean, udalerrien papera eta Europako eskualdeen arteko elkartasuna sustatzen duen eta enpresa-onuren gaintik lurraldea egituratzen duten azpiegituren aldeko apustua egiten duen lurralde-demokrazia bermatu behar da.